



IKT ERABAKIAK ZUZENDARIANTZAT

Decisiones TICs para directivos

Honako programa hau gure inguruko enpresetan antzeman diren beharrei erantzuteko diseinatu da. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknogiekin (IKT) daramaten garapen azkarraren aurrean eta Enpresa-Gestiorako euskarri gisa etengabe garatzen eta sortzen ari diren joera informatikoen gainean, erreferentzia argiak edukitzea ahalbidetuko duen ikuspegia jasotzeko baliagarria izango da.

Zuzendariei eta gerenteei zuzenduta dagoen programa da eta asmoa honako hau da: enpresa-gestiorako euskarri gisa IKTen inbertsio eta kudeaketaren inguruan erabakiak hartzeko erraztasuna emango dien testuingurua eskaintzea.

HELBURUAK:

- Enpresa-gestiorako erreminta gisa IKTak dituzten aukerak ikustaraztea, egungo teknologiaren eskaintzaren egoeraren azalpenean eta esperientzia jakinetan izandako aplikazioetan oinarrituta
- Auto-diagnostiko azkarra egitea eta IKTen inbertsioa eta gestioa hobetzeko aukerak antzematea.

METODOLOGIA:

Tresna informatiko nagusien ikuspuntu global hori lau multzo handi hauetan antolatuko da: Pertsonen kudeaketa, Bezeroaren kudeaketa, Estrategia eta Prozesu operatiboen kudeaketa.

Atal bakoitzerako honako eskema hau jarraituko da:

1. Landu beharreko esparruan egungo kezkei buruzko banakako hausnarketa.
2. Landutako esparrua erabat edo zatika jorrazteko dauden IKT tresnen egoera azaltzea.
3. Ikertzeko kasuak azaltzea eta aztertzea.
4. Azaldutako tresnak identifikatu eta beren erabilgarritasunari buruzko banakako balorazioa.

EDUKIAK:

Edukiak gaien araberrako 5 multzotan taldekatuko dira:

1 Multzoa: Sarrera..... 9.00 – 10.00

- Bilakaera teknologikoaren ikuspuntua IKTen esparruan.
- IKTen eragina gestioan.
- IKTen kostuak eta aukerak

Irakaslea: Osane Lizarralde

2 Multzoa: Pertsonen Kudeaketa.....10.00- 11.00

- IKTak euskarri bezala parte-hartzeko, pertsona-garapenerako, ezagutzaren kudeaketarako, etab.

Irakaslea: Osane Lizarralde

Atsedendia. Kafea.....11.00 – 11.30

3 Multzoa: Estrategiaren kudeaketa.....11.30 –13.00

- Estrategia bateratuaren kontzeptua eta integratutako eredu Estrategiko-Operatiboak.
- Zaintza estrategikoaren kontzeptua.
- Reporting-aren problematika.
- Erreferentzia-kasuak.

Irakaslea: Lola Elejalde/Rene Harlouchet

Bazkaria.....13.00 – 14.30

4 Multzoa: Bezeroaren kudeaketa..... 14.30 – 15.30



- Bezeroarengana orientatutako enpresaren kontzeptua.
- IKTen ekarpena bezeroarengana orientatzeko.
- Bezeroarekiko harremanen kudeaketa: eskaintza, harremanak, aukerak, lehia.... erreferentziako kasuak.

Irakasleak: Iñaki Elicegui/Josean Arce

Atsedendaldia. Kafea.....15.30- 16.00

5 Multzoa: Prozesu Operatiboen kudeaketa.....16.00 – 17.30

- Balio-katearen, berrikuntzaren, produktuaren garapenaren eta abarren kudeaketa.

Irakaslea: Osane Lizarralde

Amaierako ondorioak.....17.30 – 18.00

Berlaratuen iritiz erabilgarritasun handiena duten 3 tresna informatikoen azalpen bateratua eginaz amaituko da.

EGUNA: 2008ko maiatzaren 20an

Bigarren emanaldia: 2008ko uztailaren 8an

IRAKASLEAK:

Osane Lizarralde:

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko (MGEP) Informatika departamentuko irakasle/ikerlaria; bere lan esparrua: Informazio sistemak eta IKT Aktiboen eta IT zerbitzuen gestioa.

Lola Elejalde:

LKSko aholularia eta Estrategia proiektu-burua. Bere espezialitatea Hausnarketa Estrategikoen prozesuak bideratzea da eta, kasu bakoitzari egokitutako metodologiak definituz eta aplikatuz, plan estratjiko eta gestio plan korporatioboak egitea eta inplementatzea. Mondragon Taldearen Planifikazio Estrategikoaren Metodologia egiten parte hartu zuen.

Rene Harlouchet

LKSko Teknologiaren zuzendaria. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) inplementatzeko plan estratjikoetan espezializatutako aholkularia. Burututako iMCC Proiektuaren arduraduna (Mondragón Taldeko IKTen Plan Estrategikoa). Aholkulari eta proiektu zuzendari gisa eskarmentu handikoa BSC-BI proiektuetan.

Iñaki Elicegui

LKS Marketing Estrategikoaren arloaren arduraduna. Marketing eta komunikazio planak egiten espezializatua. Kudeaketa komertzialaren eredu eta prozesu diseinatze eta inplementatze proiektu ugaritan parte hartu du, nagusiki industri eta banaketa sektoreetan.

Josean Arce

Aholkularia eta proiektu-burua. Bezeroekiko harremanetarako sistemen diseinu eta inplementazioan espezializatua. Bezeroen kudeaketarako erduei euskarria emateko aholkularitza teknologikoaren proiektu ugaritan parte hartu du, batik bat industria arloko enpresetan.

TOKIA: OTALORA (Aretxabaleta)

MATRIKULA: 200 €

IZENA EMATEKO: Marian Uribarren (muribarren@mondragoncorporation.com) 943-712330